



DIPUTATU NAGUSIAREN AGERRALDIA DIPUTAZIOAK LEGEALDI HONETAN JORRATUKO DITUEN ILDO NAGUSIEN BERRI EMATEKO

(Hitzaldi hau orientagarria da. Diputatu Nagusiak ez du bere osotasunean errepikatuko).

Eskerrik asko, presidente anderea. Eskerrik asko batzarkideok.

Bi hilabete eta erdi igaro dira Diputatu Nagusi izendatu nindutenetik eta, denbora tarte honetan, buru belarri aritu gara lan taldeak ixten, kudeaketa plana prestatzen, aurrekontuen zirriborroa diseinatzen eta eragile eta erakundeekin lehen harremanak izaten. Dagoeneko izan ditugu Gureak, Euskaltzaindia, Ganbera, Adegia eta beste zenbaitekin lehen bilerak, eta bide horretan sakonduko dugu datozen lau urteetan gizarte sarearen eskutik. Izan ere, azken hilabeteotan hainbeste errepikatu dudan bezala, gobernatzeko moduak aldatzea da gure buruari legealdi honetarako ezarri diogun erronka. Eta hala egingo dugu gizarte sarearen eta herritarren eskutik. Argi baitauekagu gauzak egitea bezain garrantzitsua dela gauza horiek nola egiten diren.

Maiatzeko hauteskundeetan jasotako emaitzekin eta Euskadiko Alderdi Sozialistarekin itxitako gobernu akordioarekin, nahikoa babes eta legitimitate daukagu Gipuzkoarako daukagun proiektua aurrera eramateko. Ziur gaude gai izango garela lau urtetan lurraldea sendotzeko, alegia, ekonomia sustatu eta Gipuzkoari behar duen bultzada emango diogula.

Ideiak argi ditugu eta proiektuak zehaztuak ditugu. Dakizuen bezala, hil honen amaieran aurkeztuko dugun kudeaketa planean jasoko dira guztiak. Eta hortik aurrera kontraste epea zabalduko dugu jasotako ekarpenekin dokumentua hobetzeko.

Behin baino gehiagotan entzungo zenuten bezala, ekonomia suspertzea, hondakinen kudeaketa konpontzea, gizarte politikak bermatzea, gobernatzeko erak aldatzea, Gipuzkoako biribilgunea itxita azpiegiturak amaitzea eta kultura sustatzea dira datozen lau urteetarako ezarri ditugun lau erronkak. Eta lehen esan dudan gobernatzeko modu berri horren aritik, horiek lortzeko, bi bide uztartuko ditugu.

Alde batetik, herritarrekin partekatuko ditugu proiektu horiek guztiak, parte hartze prozesu eta zuzeneko komunikazio sistemen bidez.

Eta, bestetik, antzerako prozesua abiatuko dugu Foru Aldundian bertan. Izan ere, badakigu langileek asko daukatela esateko eta egiteko, eta elkarlanean askoz ere indartsuagoak eta eraginkorragoak izango gara.

Joango gara bidea egiten. Eta joango gara konfiantza hartzen. Asko daukagulako egiteko eta indarrak batuta askoz ere indartsuagoak izango garelako.

Gainetik bada ere, **sei erronka** horien xehetasun batzuk emango ditut, eta, horrekin amaituta, Diputatuaren Kabinetearen beraren kudeaketa nolakoa izango den argituko dut.



Lehen erronka nagusia **ekonomia suspertzea** da. Gipuzkoa indartzeko eta enplegua sortzeko ezinbestekoa baita gure enpresen eta langileen ondoan egotea. Dagoeneko jakinarazi dugu krisiari aurre egiteko asmoz, urtero 50 milioiko plana abiatuko dugula ekonomia suspertzen laguntzeko. Eta ahalegin handia egingo dugu produktu berriak babestu, internazionalizazioa bultzatu, gazteen kontratazioa eta lehiakortasuna sustatzeko. Halaber, jakina den bezala, fiskalitatean ere egingo ditugu aldaketak jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko bideratua izan dadin.

Bigarren erronka **gizarte politikak bermatzea** da. Eta, ildo horretan, babes soziala bermatzea izango da geure helburu nagusienetakoa. Ez dugu inor bide bazterrean utziko. Eta epe luzeko estrategiak bideratuko ditugu gizartearen zaharkitzeari, jaiotze tasa baxuari eta gainerako erronka demografikoei aurre hartzeko. Horretarako, besteak beste, hirugarren sektorearekin elkarlanean jarraituko dugu eta zerbitzu sozialen mapa garatuko dugu.

Hirugarrena, **hondakinen kudeaketarena** da. Egungo egoera aztertzen hasi gara jada eta, arazo hau behin betiko konpontzeko, PIGRUG delakoa garatu eta errauskailua eta hondakinak kudeatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eraikiko dugu. Ildo berean, bosgarren edukiontzia hedatuko dugu eta hala eskatzen duten herrietan atez atekoa kentzen lagunduko dugu.

Hurrengo erronka, **gobernu onarena** da. Hasieran aipatu dudan bezala, daukagun esperientziak eta errealitateak erakutsi digute beharrezkoa dela gobernatzeko moduak eraldatu eta herritarrengandik hurbilago egotea. Eta, horretarako, Diputazioan izan ginen aurreko garaian abiatutako bideari ekingo diogu berriro, parte hartzea sustatuz eta proiektuak herritarrekin eta Foru Aldundiko langileekin partekatuz. Ahalegin handia egingo dugu jendeari zer eta nola egin nahi dugun argitzeko, eta ekarpenak eta kritikak entzungo ditugu.

Bosgarren helburu **azpiegituren kudeaketarena** da. Hemen, Deskarga bukatu eta Gipuzkoako biribilgunea amaitzea izango da mugarri garrantzitsuenetakoa, bai eta N-8 eta N-1 errepidean hain beharrezkoak diren modernizazio neurriak hartzea ere. Azken errepide honetan, gainera, bidesaria ipiniko dugu kamioentzat Etxegarate eta Irunen. Abiadura handiko trena babestea eta behin betikoz Pasaiako regenerazioa ahalbidetzea izango dira, dudarik gabe, lortu beharreko beste bi helburu nagusi.

Azken erronka, **kulturarena**, ere izango da oso garrantzitsua datozen lau urteotan. Aurreko astean inauguratu zen Tabakalera indartzea, 2016ko Hiriburutzan inplikatzeko, euskarazko produkzioak laguntzea eta bertako sortzaileei bultzada ematea izango dira, besteak beste, legealdi honetarako ezarri ditugun helburuak.

Denbora gutxi barru izango dugu aukera proiektu horien guztien berri luze hitz egin eta eztabaidatzeko. Izan ere, lehen esan dudan bezala, erronka nagusiak hil honen amaieran zuen aurrean aurkeztu dugun kudeaketa planean jasoko ditugu.



Aurrekontuen inguruan hitz egiteko parada ere izango dugu laster. Izan ere, lehen zirriborroa prestatzen hasi gara jada. Aurreko astean bertan onartu genituen aurrekontuak diseinatzeko irizpideak eta, oraindik goiz bada ere, aurreratu dezakegu aurreikuspenen arabera, 700 milioi inguruko aurrekontua izango dela 2016koa. Hala ere, nioen bezala, izango dugu horri buruz lasaiago hitz egiteko aukera.

Gatozen orain gaurko agerraldiaren xedera, eta zentra gaitezen Diputatuaren Kabinetearen funtzionamendu eta kudeaketaren azalpenetan.

Dakizuen bezala, Diputatuaren Kabinetea bost zuzendaritzatan banatzen da: Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza; Komunikazio Zuzendaritza; Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza; Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza; eta Berdintasuneko Zuzendaritza. Jarraian, zuzendaritza bakoitzaren helburuak, lerro estrategikoak eta ekintza nagusiak zerrendatuko ditut.

(Diputatu Nagusiak erabiliko duen Power pointaren laburpena)

KUDEAKETA ESTRATEGIAKO ZUZENDARITZA

Sebas Zurutuzak gidatuko duen Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritzaren eginkizun nagusiak honakoak izango dira:

- Kudeaketa planaren jarraipena eta ebaluazio egitea, eta berari buruzko komunikazio ekintzetan laguntzea. Horretarako, antolamendu osoaren inplikazio zuzena bultzatuko dugu, zeregin teknikoak eta politikoak bereiziz, eta lotura zuzen bat bermatuz Kudeaketa Planaren eta aurrekontuaren artean.
- Etorkizuneko joerak aztertzea, GFAREN lehentasuneko jarduera esparruetan, gaur egungo politika publikoak doitu eta egokitzeko.
- Gobernantza eredu berri bat definitu eta gauzatzeko laguntza ematea; GFAREN eta eragile ekonomiko nahiz politikoaren arteko sareak ehuntzea, eragimenezko kudeaketa bat lortzeko, kudeaketa eredu ireki eta elkarlaneaneko baten bitartez.

Oinarri horien gainean, Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritzak helburu, jarduera lerro eta ekintza hauek ezarriko ditu:

1. HELBURUA. Kudeaketa plan eraginkor bat lortzea, kudeaketa eredu ireki eta elkarlaneaneko baten bitartez.

- Planaren jarraipena, ebaluazioa eta komunikazioa.
- Planaren kudeaketa ereduaren finkatzea.
- Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.



- Batzar Nagusietan kontuak ematea.
- Gizartearekiko komunikazioa eta kontrastea.
- Plangintzaren tresna guztien arteko koherentzia eta lotura lortzea: Kudeaketa Plana, Aurrekontua, Genero ikuspegia duten aurrekontuak, Partaidetzazko aurrekontuak, Euskara Plana.
- Aurrekontuak egiteko jarraibideetan klausula zehatzak jartzea.
- Aurrekontua egiteko prozesua goitik behera berraztertzea: Aurrekontua, helburuen arabera edo emaitzei begira.

2. HELBURUA. Epe luzerako hausnarketa sustatzea, politika publikoak berbideratzen laguntzeko.

- Joerak aztertzeke eta estrategiak arakatzeko sistema garatu, interes esparru nagusietan.
- Aztertu beharreko esparruak edo politika publikoak identifikatu, baita esparru bakoitzeko erreferenteak ere.

3. HELBURUA. Diputatu nagusiarentzat elkarlanean oinarritutako gobernantza sistema bat eratu.

- Partaidetza soziala bultzatu kudeaketa planaren definizioan.
- Kontraste bilerak eragile ekonomiko eta sozialekin.
- Herritarrekin partekatu.
- Gobernantza eredu bat definitu, diputatu nagusiarentzat gako diren 4-6 eremutan malguki aplikatzeko.
- Politika publiko nagusien jarraipenean lankidetzak publiko-pribatua sustatzen duen gobernantza eredu definitu.

BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA

2011ko urrian ETAREN indarkeriaren amaiera iragarri zenetik, euskal gizartearen historian garai berri bati eman zaio hasiera. Bakeak bidea egin du, eta, horrekin batera, bake faltak sortu dituen arazoaren agenda lehenengo lerroan kokatu da. Sufrimendu bidegabe eta izugarria eragiteaz gain, indarkeriaren legatua iraganarekin lotutako arazo multzo bat izan da, orainean eta etorkizunean eragin negatiboa duena.

Hamarkada askotan sufritutako terrorismoak, indarkeriak, giza eskubideen urraketak, banaketak eta amorrak mahai gainean utzi dituzte erabakitzeko dauden eta konplexutasun handikoak diren hainbat gai: biktimen beharrei eta eskubideei erantzutea, iraganaren memoriaren kudeaketa, elkarbizitzaren haustura, espetxe politika, bizikidetzaren normalizazioa, hezkuntza...



Foru eta udal mailako erakundeek hori guztia lortzen lagundu behar dute, erantzukizun partekatuko ikuspegitik. Premisa horretan kokatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren Jarduera Plana, legealdi honetan.

1.HELBURUA. Ekarpinak egin bakea modu egonkor eta atzera bueltarik gabeko batean egonkortzeko. Bizikidetzaren normalkuntza soziala bideratu. Hau dena, giza eskubideekiko konpromiso etiko eta oso bat oinarri hartuta.

- Gipuzkoako elkarte sarearekin elkarlanean, bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen udal politiken sustapena.
- Udalekin komunikazio zuzena.
- Udal esparruan ekintza proposamen programa bat sustatu.
- Udal ekintzekin elkarlana eta diru-laguntza programa.
- Giza eskubideak sustatu eta hedatu.
- Giza eskubideen hedapen ekintzen urteko programa.
- Erakunde arteko lankidetzeta eta elkarlana giza eskubideen politika publikoen diseinu eta inplementazioan, biktimen arloan, memoria historikoan eta gertuko memorian, espetxe politikan, bergizarteratzean, hezkuntzan eta bizikidetzan.
- Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzeta eta elkarlana.
- Memoria lantzen duten erakundeekin lankidetzeta eta elkarlana.
- Donostia 2016rekin lankidetzeta eta elkarlana.

2. HELBURUA. Gipuzkoar gizartean giza eskubideekiko jakintza eta errespetu kultura bat sustatu. Helburua urraketa egoeren aurrean giza eskubideen defentsa, erabilera eta sustapena egitea.

- Giza eskubideen ezagutza eta errespetua sustatu.
- Giza eskubideen arloan hedapen ekintzen urteroko programa aurkeztu.
- EHUrekin elkarlan akordioa hezitzaileak trebatzeko.
- Giza eskubideen urraketen aurrean ezagutza eta defentsa lantzen duten erakundeekin akordioak.
- Giza eskubideekiko errespetuan sentsibilizazioa.
- Giza eskubideen errespetuan sentsibilizazioa sustatzen duten kanpainak diseinatu eta burutu.

BERDINTASUN ZUZENDARITZA



Legealdi hau mezu garbi batekin abiatzen da: "Gipuzkoa gizarte aurreratuen taldean jarri behar dugu". Azken hamarkadetan, berdintasunak oihartzun handiagoa lortu du, apurka-apurka, herritarren artean. Eta ibilbide luzea egin da, eta emaitzez betea, 1988an Emakunde sortu eta aurtengo martxoan Emakume eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Araua aho batez onartu zen arte.

Testuinguru horretan, erronka nagusia da genero ikuspegia txertatzea foru politika publikoen definizioan, exekuzioan eta ebaluazioan. Horretarako, bi lerro abiatuko ditugu:

1. HELBURUA. 2/2015 Foru Arauaren garapen mailakatua:

- Berdintasunerako foru politikak eta berdintasunerako Organoa indartu eta finkatu.
- Barne testuingurua artikulatu Diputatu Nagusiaren Alorrean
- Berdintasunerako departamentu unitateak sortu, mailaz maila eta kontsentsuan oinarrituta, 2/2015 Foru Arauari jarraituz.
- Sentsibilizatorako eta trebakuntza teknikorako barne prozesuak indartu, maila politikoan eta teknikoan, eta berdintasunerako foru politiken garapenerako gaitasun teknikoa indartu genero zeharkakotasunaren ikuspegitik.
- Aurrekontua bultzatu eta babestu genero ikuspegitik.

2. HELBURUA. Lankidetzaz beste erakundeekin eta emakumeen elkarte mugimenduekin:

- Tokiko berdintasun politikak bultzatu eta indartu Lurraldean.
- GUNEA bultzatu eta indartu, Lurraldeko mugimendu feministarekin eta elkarrizketarekin harreman soziala izateko gunea baita.
- Gizartearen sentsibilizazioa areagotu genero desberdintasunen aurka eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde Lurraldean.
- Berdintasun politikei lotuta beste erakunde batzuen aurrean sortzen hasi den Gipuzkoa marka finkatu, EAEn eta EAetik kanpo.
- Harremanak finkatu nazioarteko erakundeekin berdintasunari dagokionez.

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO ZUZENDARITZA

Munduan pertsonak gero eta eleaniztunagoak diren honetan, bi hizkuntza dituzten komunitateak zorteko dira, baieztatuta baitago adin txikian bi hizkuntza kudeatzen ikasi behar duenak gero errazago kudeatzen dituela gainerakoak. Aurpegi honek ere badu ifrentzua, ordea. Hizkuntzen arteko harremana sarri gatazkatsua da eta gobernatu egin behar da: gatazka esplizitatu, zoru komun bat partekatu eta mekanismoak jarri interes eta eskubide talkak konpontzeko.



Konponbide egokiena da bi hizkuntzen oinarriko ezagutza unibertsala, horrek ahalbidetzen baitu hizkuntzen erabilera simetrikoa. Beraz, bizikidetzaren hobetzea da hizkuntzen egoera ezberdinak berdintzeko politika abiarazten denean. Balio erantsi batekin: politika horren eraginez bere hizkuntza ohiturak aldatzeko gai den komunitatea bereziki dago prestatua beste edozein berrikuntzarako.

Euskararen biziberritze prozesuan zantzu asko daude ziklo baten amaiera adierazten dutenak. Eta han-hemenka nabari dira jauzi berri baterako aurre lanak: egindakoa berrikusi, datorrena aurreikusi, dagoena eraginkorrago bihurtu eta falta dena lortzeko modua aurkitu.

Gipuzkoa igurtzian dago euskararen herrialde guztiekin. Zentraltasun hori zor zaio hizkuntzaren higatze prozesua periferiatik erdigunera gertatu izanari; beraz, Gipuzkoari badagokio orain aitzindari eta berrikuntza laborategi izatea euskara biziberritzeko prozesuan, jauzi hori luzea eta eraginkorra izan dadin euskararen lurralde osoan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak bere arduratzat jotzen du aro berrirako jauzia bultzatzea, printzipio demokratikoen gainean, beste herri erakundeekin eta gizartekoekin lankidetzan, eta bilakaeraren protagonista izango diren herritarrekin batera.

Gainera, zuzendaritzak ahalegin berezia egingo du herrialdeko erakundeetan ematen den alternantzia politikoak ez dituzan aldiro irauli hizkuntza berdintasuneko politikak. Hizkuntzen zikloak arnas luzekoak izaki, oso komenigarri zaizkie egonkortasuna eta blindatzea. Horretako, hiru helburu nagusi ezarri ditugu:

1. HELBURUA. Aldundian defektuz euskaraz jardutea, herritarrekiko harremanean hauen hautu pertsonala errespetatuta.

- Barne berdintasuna bultzatu.
- Zuzendaritzaren prozesuak berrikusi.
- Euskararen aldeko gizarte aktibatuaren ordezkariekin harremanak eta lankidetzaren sendotu.

2. HELBURUA. Klabeak diren hainbat sektoretan euskararen erabilera sustatu

- Eskolaz kanpo euskararen erabilera indartu aisialdian, kirolean, lanean.
- Udaletan: trebakuntza eta aholkularitza eskaini, teknikariekin lankidetzan, Udal txikiei laguntza emateko eskualde funtzionamendua sustatuko da, Eudel, UEMA.



- Arlo sozioekonomikoan: lan esparruan hizkuntza berdintasuna bultzatu.

3. HELBURUA. Berrikuntza

Aukera berdintasuna egon dadin, euskararen presentzia areagotu beharra dago, hurbileko euskal giro erakargarri eta indartsu bat osatu beharra, gaztelaniaren erabilera zabal eta etengabearekin parekatzeko.

Bide horretan urrats handiak egin dira azken hamarkadetan, baina prozesua motel aldian sartu da. Nabari da ohiko jarduerak errepikatze hutsarekin ez zaiola orain arteko eritmoari eutsiko, berrikuntza premia handia dagoela.

Zuzendaritzak ikerketa eta berrikuntzarako baliabideak indartuko ditu eta, horri esker, 2016an ondoko ikerketa lerroak abiatuko ditu.

KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

Geure buruari ezarri diogun erronka nagusia da Diputazioa herritarrei hurbiltzea. Izan ere, Diputazioa urruneko erakunde bezala ikusten dute herritarrek, denboran atzera gelditu den erakunde ezezagun bezala. Egoera horrekin amaitzea izango da Komunikazio Zuzendaritzaren helburu nagusia. Hau da, Diputazioa hurbileko erakunde bilakatzen saiatzea. Gipuzkoarrek jakin dezatela nor diren lurraldeko erakunde garrantzitsuena kudeatzen dutenak eta zer den zehazki egiten dutena. Izan dezatela sentipena lau urtetan aurrerapauso handia eman dela, agintari zintzoak izan dituztela Gipuzkoan eta gauzak ondo egin direla. Laburbilduz: legealdi hasieran baino hobe dagoela Gipuzkoa 2019an. Eta, hori lortzeko, komunikazioari berebiziko garrantzia emango zaio legealdi honetan.

Gizartea bera eta komunikatzeko sistema eta tresnak hainbeste aldatzen ari diren honetan, beharrezkoa da komunikazio tradizionaletik haratago joan eta herritarrengandik hurbilago egotea ahalbidetuko digun modua bilatzea. Hori dela eta, prentsaurreko eta prentsa idatzian jartzen diren ohiko iragarkien eskematik atera eta zuzeneko komunikazioa eta parte hartzea sustatu behar dira. Aldaketa hori sare sozialen, herritarrekin egiten diren ekitaldien, diputatu nagusiak herriz-herri egingo dituen bisiten eta parte hartze prozesuen bidez bideratuko dugu, besteak beste.

1. HELBURUA. Diputazioa erakunde hurbilago bilakatu

- Diputatuen lana jakitera eman.



- Herritarren parte hartzea bultzatzea, komunikazioa atala indartuta.
- Sare sozialetan diputatuen lana zabaldu
- Diputazioko webgunea berrikusi.

2. HELBURUA. Diputazio barneko komunikazioa hobetu/indartu

- Langileen iritzia eta ekarpenak jasotzeko intraneta erabili
- Erabaki garrantzitsuenetan zuzenean parte hartzeko aukera emango zaie langileei (Kudeaketa Plana)

3. HELBURUA. Harremana hobetu hedabideekin

- Komunikazio plana egin hedabideekin kontraste lana egin ondoren.
- Publizitate kanpainak arautuko dituen foru araua onartu.
- Ohiko publizitate kanpainak.

4. HELBURUA. Proiektu estrategikoen eta kudeaketa planaren komunikazio plana

- Kudeaketa Estrategiko komunikazio plana burutu.
- Estrategikoak izango diren proiektuen inguruan komunikazio estrategia indartsuak diseinatuko ditugu.

5. HELBURUA. Batzar Nagusietan komunikazioa indartu

Donostian, 2015eko irailaren 14an